



euskalmendizale**federazioa**

Iraupen Luzeko Ibilaldien Araudia

Reglamento de Marchas de Largo Recorrido

***EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOAREN BATZARRAK
2007-02-17AN ONARTUTAKOA ETA
2009-10-23AN ALDATUTAKOA***

1. artikulua.

Natur inguruetan barrena egiten diren Euskal Mendizale Federazioaren (EMF aurrerantzean), Nafarroako Federazioaren eta Ipar Euskal Herriko Mendi Taldeen Iraupen Luzeko Ibilaldiak (ILI aurrerantzean) mendiko kirola sustatzera bideratuta daude, eta parte hartzaileei Euskal Herriko geografia eta ondarea erakutsi nahi zaizkie.

2. artikulua.

ILLak erregulartasun eta erresistentzia probak izango dira, eta mendizale federatu gazteei eta nagusiei zuzenduko zaizkie.

3. artikulua.

Ibilbidea egiteko gehieneko eta gutxieneko denborak ezarriko dira. Lasterketaren gutxieneko erritmoaren mugan sartzen ez den erritmo bati dagokio, eta honako parametro hauek hartuko dira lastertasunaren gehieneko erreferentziatzat:

- ✓ 6 kilometro orduko lastertasuna batez beste
- ✓ 600 metroko desnibela goraka ordubetea (+)
- ✓ 700 metroko desnibela beheraka ordubetea (-)

4. artikulua.

ILLak antolatzen dituzten erakundeak kontrol txartel bana emango diete parte hartzaileei; eta, bertan, gutxieneko eta gehieneko denborak azalduko dira (ikusi 3. artikulua). Ezarritako kontrol puntu guztietan bete beharko da txartel hori. Artikulu hau ez betetzeak deskalifikazioa ekarriko du.

5. artikulua.

ILLetan ez da irabazlerik izango. Parte hartzaileen artean SAILKATU DIRENAK eta SAILKATU EZ DIRENAK bereiziko dira.

6. artikulua.

a) Talde antolatzaileak ILLaren azken emaitzekin akta egingo du, eta honako hauek azalduko dira bertan:

1. Izena eman duten parte hartzaileen kopurua (EMAKUMEZKOAK) (GIZONEZKOAK).
2. Bukatu duten parte hartzaileen kopurua (EMAKUMEZKOAK) (GIZONEZKOAK).
3. Ibilaldian parte hartu duten taldeen zerrenda.
4. SAILKATUEN zerrenda, alfabetikoki ordenatuta, euskarri informatikoan.

b) Ibilaldia antolatu duen taldeak EMFra igorriko ditu a) puntuko datuak hark eskatutako formatuan, ibilaldia amaitzen den unetik hasita 20 eguneko epean gehienez.

7. artikulua.

Ibilaldiek, EMFren egutegian azaldu ahal izateko, honako ezaugarri hauek izan behar dituzte:

- ✓ Balioespen teknikoaren araberrako katalogazioa: erraza.
- ✓ 40 km-ko distantzia edo luzeagoa.
- ✓ 2.000 metroko desnibel metatua goraka.

Baldin eta arrazoi logikoren batengatik ibilbideari aurreko parametroak falta bazaizkio, ILLen Batzordeak ibilaldia homologatu ahal izango du, antolatzaileen proposamena aztertu ondoren.

8. artikulua.

EMFren egutegiko ILLak antolatzen dituzten elkarteek honako datu hauek eskatuko dizkiete ofizialki parte hartzeko interesa dutenei:

- ✓ Izena eta bi abizenak.
- ✓ Gauden urteko federazioko lizentziaren zenbakia (NAN) edo antzeko agiriren bat.
- ✓ Partaide den klubaren edo taldearen izena.

Datu horiek EMFra igorriko den sailkapen aktan agertu behar dute, 6. artikulua dioenaren arabera.

9. artikulua.

Parte hartzaileek ibilbidean zehar izan ditzaketen istripuen aurrean, antolatzaileek ez dute inolako erantzukizunik hartuko, EMFren Lizentziaren Aseguruak, beste mendi federazio bateko aseguruak edo talde antolatzaileak kontratatutako beste aseguruaren batek hartuko baititu bere gain.

10. artikulua.

Parte hartzaileek bakarka edo taldeka parte hartuko dute.

11. artikulua.

Antolatzaileek hornidura zerbitzuak ipini ahal izango dituzte, eta parte hartzaileei horien berri emango diete. Hornidura guneak garbi utzi beharko dira, sortzen den zaborra dagokion edukiontzietan utziz, ondoren birziklatu ahal izateko (pilak, kartoia, beira, plastikoa, zabor organikoa...)

12. artikulua.

Talde antolatzaileek inprimatzen duten propagandan, honako datu hauei buruzko informazioa eman behar dute, argi eta garbi:

- ✓ Talde antolatzailearen izena.
- ✓ Izena emateko baldintzak.
- ✓ Parte hartzaileen kopurua eta izena emateko epea, halakorik baldin badago.
- ✓ Mapa, kilometroak, desnibelen grafikoa eta ibilbideko seinaleen eredua.
- ✓ Irteera ordua eta ordena.
- ✓ Kontrol puntuen zerrenda eta kokapena.
- ✓ Osasun zerbitzu medikoen zerrenda.
- ✓ Hornidura zerbitzuen zerrenda, halakorik baldin badago.
- ✓ Ingurumenari buruzko ohar eta aholku zehatzak, ibilbidean aintzat hartu beharrekoak.
- ✓ Ibilaldia EMFren urteko ILLen egutegiaren barnean dagoela.
- ✓ Izena emateko modua.
- ✓ Ordaindu behar bada, ordaintzeko modua.

13. artikulua.

Ibilaldiak balizatzeko ez da inoiz pinturarik erabiliko. Banderak edo plastikozko zintak erabiliz gero, talde antolatzaileak arduratu beharko du ibilaldia amaitu bezain pronto horiek biltzeaz. Konfitak edo txirbila kontu handiz erabiliko dira; hala ere, tamaina kontuan hartuta, bestelako ebakinak baino hobea da ingurumenerako.

14. artikulua.

Ibilaldia hasterakoan baldintza klimatologiko txarrak direla eta istripuren bat gertatzeko arriskurik baldin badago, antolatzaileek proba bertan behera utzi ahal izango dute, edo proba atzeratu edota ibilbidea aldatu ahal izango dute.

15. artikulua.

Antolatzaileek ibilbidea ezagutzen duten bi ibiltari izan behar dituzte gutxienez; ibilaldian, azken tokietan joango dira horiek, parte hartzaileen segurtasuna bermatzeko.

16. artikulua.

Antolatzaileak arduratuko dira osasun laguntzaz eta bestelako babes baliabideez, hala behar izanez gero.

17. artikulua.

EMFko ILlen egutegi ofizialak urte natural bakoitzean gehienez 25 ibilaldi hartuko ditu, eta herrialde bakoitzean ez da data berean ILI bat baino gehiago izango.

18. artikulua.

Araudi honetan zehazten ez diren gaiei buruzko erabakiak ILlen Batzordeak hartuko ditu.

19. artikulua.

EMFren ILletan izena eman dutenek baimena ematen diote EMFri beharrezkotzat jotzen dituen argitalpen inprimatu nahiz informatikoetan beren datu pertsonalak erabiltzeko.

20. artikulua.

Gutxienez urteko egutegiko (EMF) zortzi (8) ILI egin dituzten federatuak (herrialde bakoitzean bat (5), eta norberak aukeratutako beste hiru) izango dira FINALISTAK, eta horixe adierazten duen diploma jasoko dute.

21. artikulua.

EMFk antolatutako ILletan parte hartzeak araudia osorik onartzen dela esan nahi du.

INFORMAZIO GEHIGARRIA

- 1.- Iraupen Luzeko Ibilaldien Zirkuitua Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako, Nafarroako eta Iparraldeko talde eta klubek eta Euskal Mendizale Federazioko Ibilaldien Batzordeak antolatuko dute.
- 2.- Euskal Herriko lurralde guztietatik igaroz, parte hartzaileen erregularotasuna, ahalegina eta elkarren arteko adiskidetasuna sustatzea da helburua.
- 3.- EMFk finalistatzat hartuko ditu gutxienez zortzi ILI osatu dituzten federatutako parte hartzaile guztiak, lurralde bakoitzetik bat eta egutegi horretatik aukeratutako beste hiru; eta mendizale federazio honen urteko txostenean beren izenak argitaratuko ditu.
- 4.- Antolatzaileek saria merezi duela erabakitzen duen federatuak jasoko du Shebe Peña garaikurra, honek araudiko artikulua guztiak bete dituztenean, betiere. Saria eman gabe gelditu daiteke.
- 5.- Parte hartzaileek klub eta taldeen eta EMFren araudiak errespetatu behar dituzte. Araudia ez betetzeak deskalifikazioa ekarriko du.